

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Jabeen baimena Fuente Pudia VI – 0.125 Ehiza barrutia berritzeko

Fuente Pudia izeneko VI – 10.125 ehiza barrutia berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden eta Arbiganoko jurisdikziokoak diren lurzati pribatu zein publiko guztiak, Erriberagoitiko Udala eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, Euskadiko ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita hamabost egun balioduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da udal honek baimena daukala ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Pobes, 2023ko martxoaren 8a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ